

# JOHN F. KENNEDY


Ara or lenengo presidente katolikoa Ipar-amerikan.

Katolikoentzat "trunfo" bat izan ete da ori? Urrunegi joatea izango litzakela diruditxat. Ori esatea, gauzak ondo ez neurturea izango litzake.

Poztu egin gara asko katoliko bat triunfante atara dalako. Baiña Nixon-ek eleziñoak irabazi ba-ebazan be katolikook ez genduan derrotarik izango. Kontuan euki bear dogu: Ipar-amerikako eleziñoak ez dira izan katoliko diran eta ez diranen arteko lutxa bat, partidu politiko bien burruka bat baiño.

Baiña Kennedy triunfante urteteak badiño zeozer katolikoan alde. Orain ogetamar urte katolikoentzako ez egozan gauzak bardin. Orduan derrotatua izan zan Al Smith-ek arerio asko izan zituan bere katolikotasunagaitik. Prejuizio asko eukezan orduan katolikoan kontra.

Orain gauzak asko kanbiatu dira. Katoliko izenak ez dau gorrotorik biztuten ipar-ameriketarren biotzetan. Eta alde onetatik John F. Kennedy presidente urtetea triunfo bat dogu katolikook. Onak esan gura dau katolikoak ez gareala kanpotarrak Ipar-ameriketean. Eta poztu egiten gara. Eleizeak aurrerantza aundiak egin dauz Ipar-amerikan, 40 milloitik gora dira bertako katolikoak, Kennedy jaio zan estaduan—Massachusetts estaduan—erdiak baiño geiago katolikoak dira, eta euren artean John F. Kennedy. Katoliko zintzoa, Zorionak John Kennedy! Eta zure eta gure Jainko onaren aurrean zure alde dozu gure otoitz apala. Zorionak John F. Kennedy!



VII URTEA - N.º 74

ABENDUA (12) 1960

DEPOSITO LEGAL SS. 1.092-1959

# ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

## Erromak besoak zabalik

*Erroma besoak zabalik dago, bere seme danak besarkatu gurean letxe. Konzilio aurreko arloak ondo doaz. Eta alde guztietatik borondate ona agiri dala dirudi. Mundu guztiko kristiñauak iñoiz baiño anaiago sentiduten gara. Komunismo zitalak ia-ia aztu eragin deuskuz geure arteko gorrotoak. Baiña alkar laguntzetik batasunera pauso aunditxoegia ez ete dago? Jainkoak jakin. Beretzako ez da ezñezkorik. Eta nok daki laster batasunaren argi pozgarria biztuko bada! —Artzain bat eta artalde bat— guztiok anai zintzo. Gure Aita Santu Juan XXIII'onaren biotzean badago ola-ko itzaropenen bat. Erregutu daigun batasunaren alde.*





# ELEIZEAK BERE ESKUBIDEAK

## ETA OBLIGAZIÑOAK DAUKOZ

Ameriketako eleziñoak akabo dira, oraingoz beintzat.

Eta erlijio kontua?

Azkeneko illeetan —eta urteetan be bai— alegin aundiak egin dabez Ipar-amerikako katolikoak euren kontra eukezan prejuizioak desegiten. Eta asko lortu be gein dabe. Azkeneko eleziñoetan argi ikusi dogu.

Baiña Puerto-Rico-ko eleziñoak dirala ta kalte aundia izan dabe ainbeste katoliko zintzoren alegiñak.

Bai ba, Puerto-Rico-n iru obispok galazo egin deutse katolikoeri bertako nausiaren aldekoeri botoa emotea. Eta au dala ta Ipar-ameriketan propaganda asko egin dabe antikatolikoek Eleiza katolikoaren kontra. Eurek diño; “Ikusi alboko naziñoan Eleizeak zelan manejatzen dabezan politika gauzak”.

Eta jasoera oneek zer ikusi aundia izan dabe erri-errikoen artean. Ipar-amerikan Eleizearen artu-emon eta arloak guztiak esagutuko balebez, gertaera orrek ez eban orrenbesteko lañorik atarako. Baiña ango katolikoak ez dabe izan denporarik euren erriaren kontzientzian Eleizearen organiziño gora-bera danak sartzeko. Aizkor ta zuur ibillita be, denpora gitxian asko ta ondo egitea gatxa da. Orregaitik golpe garratz bat artu dabe.

Baiña Puerto-Rico-ko jasoera begi zuzenez ikusi bear da, prejuizio barik. Eleizea politika kampanan sartu dala? Guzurra. Ezta Eleizea Estaduaren goraberatan nastau danu. Aldrebes bai: Estadua sartu da Eleizeari tokaten iakozan arloetan, eta moraleko legeen kontra, estadua edo orain arte estaduan egon direanak. Obispoak botoa ukatu deutsen partidukoak, eskoletan erlijioari trabak ipiñi gura izan deutsez, eta beste lege zital batzuk be bai: zuzen-zuzen deretxo naturalaren kontra joan dira.

Eta eleizeak bere semeen alde urten dau.

Eta euren onerako bakarrik emon dau agindu ori: “ez emon botorik orain agintzen dabeneri, bestela ondamedira zoaze”. Eleizeak ba-dauko bere semeak on bidean ipinteko eskubidea ta almena. Bestela zelan iztaze Eleizea “egizko soziedade” bat?

Puerto-Rico-ko obispoak ez dabe euren eskubideak erabilli baiño besterik egin eta ezin leikioe iñork esan “politika arloan” nastau dirala.

Eleizeak edonon izan dau bere semeeri on-bidea erakusteko eskubidea. Antxiña eztala, Caggiano Arjentina-ko kardenalak, bertako krisis gogorrean dei egin eutsen katoliko daneri batasun eta bakera, eta Frondizi Arjentina-ko presidenteak eskerak emon eutzazan. Ceylan-en, eskoletako libertadeak kendu gura dabezan gobernua- ren kontra jarri dira obispoak, gizonaren deretxoak desegitera doazalako. Nigerlan karta bat idatzi dabe bertako obispoek. Karta onetan asalduen dabez, iñork zapaldu ezin leikezan soziedadeko ta apartekoan libertadeak. Eta Frantzian: “Kontuz agitari ta erritar guztiok, diño obispoak. Deretxo naturala ta Goitiko deretxoak ez leitekez ardura barik zapaldu”.

Bai, Eleizeak bere eskubideak ditu, eta ezin leikez oinperatu, iñondik be. Eleizeak ez dauko zertan sartunik politika arloetan. Ezta Estaduak be Eleizeari tokaten iakozan gauzetan. Alkar lagundu leitekez, baiña bakotxak berenetik ezer ukatu barik hateg be eskubide fundamentalak ba-dira. Eta Estaduak Eleizearen deretxoak errespetatu gura ez ba-dauz, orduan ez dauko aurrez-aurre plantatia baiño beste erremediorik.

Puerto-Rico-ko obispoak euren egin-bearak bete baiño eztabe egin. Eta biotz zuzenez eta adimen argiz gauzak begiratzen ausnartuten dauzanak, ez dau zer esanik eukiko.



# BESTEAKAITIK OTOITZ

## EGITEN DOGUNEAN

"Munduak uste dauan baño gauza geiago dakarzkuz otoitzak" —diño Tennyson olerkariak.

Erlxi bardinekoak dira fededun gizon eta emakumeak be. Ba-dakigu danontzat eta bakotxarentzat otoitzak gordetan daben indar arrigarria.

Olan izanda zelan gara ain alperrak otoitzerako?

Asko momentu gatz eta garratzetan akordetan gara errezetako: suberteak zirikatuten gaituanean, edo okerren bat ganera yatorkunean, edo sorterrria txarto doanean... Baña olan otoitz egiten dogunean, guk gara dogun "ori" lortuteko Jainkoagana azken joaten gara; lenego beste bide guztiak probau bearra izaten dogu, eta bide onetatik ezin badogu jaritxi, orduan, azkenean, besoak zabalik joaten gara Jainkoagana. Eskari au txatxala eta noizean-beingoa da, eta ez da mirestekoa olako errezuen bidez ezer gitxi lortutea.

Baita be jazoten da: otoitz egitean umetan ikasiko berbak erabilten doguz askotan, zer esaten dogun be jakin barik, eta otoitz onetan fede gitxi agertuten dogu. Au ez da otoitza.

Beste batzuetan onelako zeozer be esaten dogu: Zergaitik eskatu, Jainkoak ez yatik ba nik baiño obeto nik bear dodana?

Ori dana ikusita, begiratu daigun besteengaitik otoitz egiten dogunean zer jazoten dan.

Lelen-lelengo, pentsau ete dogu iñoiz olan egiten dogun otoitzak, besteengaitik egiten dogun errezoak, geuri zenbat on dakarzkuzan? Gauza bat da ezin daitekena: erreguzari garean gizon arentzako gorrotorik eukitea. Ez dakigu gure otoitzen indarra sentidu badabe edo ezpadabe, baña bai, otoitz egin dogulako obeak gareala. Egiz esaten eban Inlaterra'ko George Meredith eskri-

toreak: "Otoitz egitetik zutuntzean len baño obeak bagara, ziur egon, entzun gaitu Jainkoak".

Ete doguz gure inguruan ezkerretik begirutzen, edo min emoten deuskuenak, edo ikusi ezin doguzanak? Erregutu daigun euren alde eta ezbardintasan guztiak, diferentzi danak, bardinduko yakuz. Orduan ikusiko dogu zelan postuten garean; munda asko be maitagarriagoa irudituko yaku. Liburu Santuetakoak dira berba oneek: "...Job'egaz errukitu egin zan Jauna bere lagunen alde otoitz egin oi ebalako".

Otoitzak ez gaitu baretu bakarrik egiten, baita gure borondatean indartu be. Gure buruari egoak emoten daitsoz besteen izakera eta egoera ezagututeko; gure kontzientzia itxartu egiten dau; maitasun garratan ipinten deusku biotza. Eta azkenean egitera sakatuten dau gure borondatea: bere lagunen, bere kutunen alde erregututen dabenak, euren ona lortuten aleginduko da. Aberriaren alde bero ta sutsu erregututen dabena, erritar zuzena ta zintzoa izango da.

Ete daukagu gugaitik otoitzean diñarduanen bat? Olan bada, izango dogu gure barruan indar aparteko bat.

—Zelan leiteke askotan sutan eta zoratu-ta nagoanean, beingoan baretu eta etxeke silla baten patxadan jezarrita lez gelditutea? —itaundu eutson gerratetik etorriko soldadu batek abadeari.

—Ez ete da izango nonork zure alde erregututen diñardualako? —erantzun eutson abadeak.

—Bai, egia da. Neure amaren otoitzagaitik da.

Guk besteagaitik otoitz egitean, ez onek, geuk artuten doguz grazirik apartekoan.



# DAKAR ALDETIK

Nire aspaldiko irakurleak. Saludu bero bero bat Dakar-retik. Atzo arratsaldean, host t'erdiak inguruan eldu gara bertora. Amalau egun justu, Bermeo-ko portua itxl genduanetik.

Emen ez deusku inork urten ondo etorria emoten. Bermeo-ko portuan barriz, a izan zan bai despedida ederra, inoizkorik ederrena.

Arratsaldeko bostetan urten genduan. Illaren amaseian. Ondo akordetan naiz. Barkuak txistuka. Moillak gentez betarik. Eskuak eta painelu zuriak aidean. Batzuk —emazteak, noviak, umeak— negarra aurpegian. Beste batzuk —embarke bako tostartekoak— pena aundia biotzean.

Amasei barku giñean guztira. Amalau Bermeo-koak, eta bi Ondarrabitarrak. Aurtan, Poeta Ercilla-n gatoz frailleak. Barku ederra berau, 250 zaldiko motorduna.

Matxitxako-ren aurretik pasakeran, talaiako radiotik agur egin euskuen alkate jaunak eta kofradiako presidenteak. Azkenengo agurra. Agur, Bermeo-ko erria! Agur, datorren urterarte!

San Juan Gaztelugatx-ekoaren pareira eldu gintzazanean, itxasinguru biribilixu bana egin eben unzi guztiak. Lenotoitz egiten eutsoen San Juan-eri. Orain barriz —ogeigarren sekulako aurrerakuntzak—, otoitza kenduta, girabiratxu orregaz geratu dira. Agur, San Juan! Agur Euskerri maitea!

Urrengo egunetan eguraldi zantartxua euki genduan. Aize kontrarioa. Olatua, otza eta euri zaparradea naikoa. Eguraldi txarra egiten dauanean, arraintzaleeri-bere laster igarten jaku barruan daroagun ondoeza. Erdi ixillik, erdi mareatuta, jateko gogo aundi barik, batzuk beñik beim, aolantxe egoten gara. Eta danok armin, otzagaitik edo euri zaparradakaitik kubertan gure gustura egon ezin gaithekezalako.

Beste urteetan lez, Finisterre inguruan barku merkante asko ikusi genduzan. Albo albotik pasatu jakun Begoña transatlantiko, eta frai Alberto-k bertako lenengo maikiñisteagaz, bere anaia Erramon-egaz, radiotik verba egin eban. Itxasoa bera betxikia da orain gizonentzat, eta munduko edonon dabilzä Bermeotarrak.

Aizeak amor emoten ez eban ezker, zabaletik barik, barrutik joan giñean Portugal erdirarte-edo, eguraldi txarragoaren ikaraz. Berlinga islen inguruan, atun aparejua bota genduan, eta danon pozagaz egaluz txiki polit bat atrapatu. Igaz, parajonetan, amaika atun josi zituen gure barkukoak.

Domekea be eldu zan. Baiña beste egunetan lez, meza barik geratu giñean balantzadearen pasifioagaz. Alan ta guzti-bere, egin genduan zerbait, Jaunaren eguna ospatuteko. Ordu lauren bat lenago, avisua bota eutsen frai Alberto-k barku guztieri, zazpirak puntuan Aita Imanol-ek verba egingo eutsela, eta ordu atako barruko gente guztia radio inguruan entzuteko listo egoeko. Alan egin zan. Verba egin neutsen, arraintzale fiñak eta kristiñau zintzoak izateko asmoa barriztu genduan, eta Jaungoikoari eskerrak emon ondoren, Canarias-erarte itxasaldi on bat eskatu geuntsan.

Urrengo egunetan itxasoa asko baretu zan, aizea kalmatu, eguraldia epeldu, arona aseguratu, Tenerife-rako bidea laburtu. Arrezkero, barruko gizonak be bizkortu egin zirean. Neguko erropak datorren urterarte erantzita, beste humore bategaz ebiltzan danak, edo barkua arrantxatzen, edo aperujuak armatzen, edo kubertea garbituten edo noiz elduko kalkulatzan.

Gero ta gero-bere, allegatu gintzatzen Tenerife-ra. Egun bat aurrerago elduko giñean, averia batzuk euki ez bagenduz. Erri



polita, Santa Cruz de Tenerife. Bertako euskaldun lagun batzuri eskerrak, gauza asko ikusi genduan: Teide mendi altua, La Orotava-ko ibarra, Puerto de la Cruz-ko itxasertz miragarria, Noruega, Suecia ta Ingalaterra-ko turistez betea.

Tenerife-n egun oso bi igarota gero, barriro itxasora. Bidean gatozala, radioz entzun dogu, Freetown aldetik euskaldun frantsesak arraintzan polito dabiltzala. Laster asiko gara geu-bere atunetan, eta aurten dungulua atarako deusagu arrainari. Poz aundia daukogu danok, eta Da-

kar-retik zenbat urreaso, gure gogoia albat bizilagor.

Azkenean, eldu gara Dakar-rera. Danok ondo. Egun bi egongo gara bertan. Petrolio ta ura artu bear dogu. Eta gaur illuntzean urtengo dogu itxasora. Dakar-reko hadian egingo dogu karnadea; eta urrengo egunean, argiagaz batera asiko da Dakar aldeko Bermeotar arraintzaleen inoizko atuneterik aundiena.

Agur, urrengoarte.

Dakar, 1960, abenduak 1

Frai Imanol Berriatua

# KONGOKO ELEIZEA

Barri eskasak iatorkuz Kongo aldetik. Propaganda Fideko "Fides" periodikoak diñoskunez, illun ikusten eida bertako Eleizearen etorkizuna.

Errebuluziño edo dalako orrek gauza guztiak eperdiz gora ipini deuskuz an be. Botau ditue euren etzetara beljitarrek; eta Eleizeagaz beragaz be orixe egin gura dabe. Eleizea beti konpondu izan da ondo an beljitarrek. Eta izan be olantxe izan bear diru. Baña bertako jauntru barriak diñonez, Eleizek kolonialismoa zabaldu besterik ez eidau egin; eta orrezaz-gaiñera beljitar euren arerioeri lagundu. Au dala ta Eleiza eta misioneru guztien kontra aupadoka eta deadarka diardue. "Misioneruak beljitarrek dira-diñoe—, espia batzuek besterik ez tira".

Eta lan onetan ondo baño obeto lagun-tzen deutzie bertako beste erlijioan. Batez be Eleizeak apuka-apurka baztertzen eroiazan sekta amorrotuak. Euren arteko gerraen naste horraste guztiak ondo aprobe-tatzetan dabez inguruetako misioak erre eta botatzeko. Zarritan misioneruak eurak be esku artu izan ditue; eta monjak izan ezke-ro batez be edozer nabarmenkeri eta loike-ri gitxi izaten iakue.

Ezia arritzekoa be. Bertako buru diran, edo grupo askoren buru diran agintari-

txoak komunistak dira. Eleizearen arerio amorrotuak.

Beti izan dira orain arte misioneruak an-go eskolotako agintariak, edo beintzat erakuslerik onenak. Baña kanpo aldetik etorri diran maixu barri orrek zelan ikusi olakorik. Batez be komunista barri orrek?

Eta ze bide artu bear ete dau ba Kongoko Eleizeak?

"Fidesek" diñonez, bertakoekin egin bear eida egitekoa. Kanpokorik ezta artzen. Zelan ba? Kongoko kristiñauak izan asko dira. Baña onetatik zenbat dira egizko kristiñauak, zenbateraño erne eta asi da euren biotzetan Katolizismoaren azia? Asko katolikoak ez balira lez bizi dira. Leopoldvillen eta Elizabethvillen bertan be eunetik anabostek besterik eztabez euren kristiñau egin bearrak beteten. Akzion Katolika be eskasa ta txakilla aurkitzen da, batez be europatarrok alde ta gero.

Erremediorik bai ete daukagu orduan? Kongoren erremedio bakarra, "Fidesek" diñonez auxe da: bene-benetako laikadu bat formau bertan. Bien bitartean eztaukagu an ezer. Eta auxe da Eleizearen oraingo buruasterik aundiena eta derriorrekoena. Orixe egiten badau, asko egingo dau.

A. Zubizarreta



# Kubako barriak

Aita Xabier Arzuaga Arantzazuko fraillle gazte bat da. Gaztea —ogetamabi urte-baña asko ikasia eta asko ikusia. Meza emon ondoren Kubara joan eta bertan igarro ditu azkenengo zortzi urte oneek. Arri-zekoa be bada fraille gazte onek egin daben guztia. Kubako Akzion Katolikaren konsiliario nazionala da, eta obispo, kardenal eta arzobispoen lagun aundia. Fidel Kastro, "Txé" Gebara eta errebuziño edo dana dalako orren zuzendari guztiekin ibilia.

Orain dala pare bat ille etorri iakun barriro gure Euskalerrira, eta or iabilku atzera aurrerako lan bizian. Izan be—deritxotanez—ezta Aita Xabier geldi egoteko iaioa. Egun batzuetan Bilbon euki dogu. Periodistak lazter susmañu eben, eta ementxe Irabalbarriko komentu onetan zerezan luzeak euki dabez. Etorri... Kontzeziñoiko nohenia emoten etorri zan, baña orrezaz gañera konferentzi batzuk be emon euskuzan, Kuba eta bertako Eleizeatzaz. Jentea ugari izan gendun, Bilbo guztitik; zinetokian ateak, portikoak eta eszenario, danak egozan plen-plen. Gauza ederrak eta ondo pentsatuak hota ebazan. Ara emen berba bitan gauzatxo batzuk, bertatik aterata.

## KARTZELETAN

"La Cabaña" kartzelako kapellau berau izan zan. Irureun personarentzako tokia eiegoan, baña Kastrok zelan edo alan mila eta irureun pillotu eiebazan. Batistaren errejimeneko burutxoak euretatik asko. Burutuak ez ze buru aundiak be bai batzuk: Sosa Blanco eta abar. Euretatik asko afusilatuak izan bear eben, eta Aita Arzuagan lana, geien bat beintzat, onexek ondo preparatzea izaten zan. An ikusitakoa ikusita ta gero Jaungoikoaren duda gitxi eidauko berak "Nik eztaikit Santuak zelan ilten diran —diño Aita Xabierrek— baña asko obeto ez. Jaungoikoaren usaiña artzen zan bertan kartzelan, bere berotasuna, bere arnasa. Kolpe egin leikion" Batez be Sosa Blanco ori ikustekoa eiegoan. Bera zan kartzelako atunik loditxoena, eta baten batek egiten baeban txistik erresu denporan, derrot esaten eieban "Ixilik mesedez Jaungoikoakaz berbetan gagoz eta". Santu bat legez il zan eta alantxe beste asko beragaitik.

Angoak ikusi ta, Aita Arzuagak medikoekin ibilli bear izan eban.

## KASTROGAZ

Berba gitxi egin eieban bizartsu onegan Iges egiten eietson eta. Fraillearen bildura edo. Dana dala, bein baten Karidadeko Ama Abanara etorrelata an eiegoan Kastro be. Urratu eiakon Aita Arzuaga ta bertan asi eiziran. Kastrok derrot esan eietson: "Zer deritxozu? Kariadeko Ama be ez ete dogu errebulizinarian bat gero? Baliteke —erantzun eutson A. Xabierrek— baliteke, Karidadeko Ama danez, errebuiziñoan karidaderik badago... baliteke" "Karidadea... karidadea... beti karidadea eta justizia noizko? Auxe esan eta igar



Aita Xabier Arzuaga

egin eietson Kastrok. Eta ezta arritzekoa be. Bere buru beroan an ebiltzan jira biraka berak il ebazan guztiak eta.



## "TXE" GEBARAGAZ

Lagun aundia izan eieban. Ondo konpon-  
tzen ziran. Jakiña da Gebara au komunis-  
tea dala. Lagunak eurak be arrituta eiego-  
zan bien arteko konfiantzeagaz. Bein Aita  
Arzuagak esan eitson: "Pena dot zulako  
lotsagabe bat ain azkarra izateagaitik"—  
"Baaa... ez estutu, lotsagabeok lotsagabea-  
kaz ondo konpontzen gara ta".

Zarritan itaundu eieutson Aita Xabierrek  
komunistea zanentz. Gebarak beti ezetzkoa.  
"Baña gizona, derrior izan bear, ik esaten  
doana eta pentsatzen doana egia badok  
beintzat". "Ba... ni enaz komunistea".

Danok dakigu orain, Gebarak orduan gu-  
zurra esan eبالا.

## ELEIZEA KUBAN

Zelan aurkitzen dan Kubako Eleizea?  
Aita Xabierrek diñonez geroago eta okerra-  
go. Kastrok komunismorantz egin dau eta  
jakiña da komunismoaren areriorik aundie-  
na Eleizea dala. Galeraso ditu kontixu erre-  
bista, radio eta telebisiño katoliko guztiak.

Eleiz gizonak eurak be bein baña gelago-  
tan artu ditu barregarri eta asi da ia Eleiz-  
eatzaz amorruz berba egiten. Gañera lege  
barriren bat atonduten eidabil oraintxe,  
edukaziñoa Eleizeari kendu eta Estadua-  
ren eskuetan ipinteko kontixu. Aita Ar-  
zuagak diñonez, auxe izango eida txokia  
ekarriko daben koskia. Eleizak au eztau  
iruntziko eta zeozek derrior etorri bear  
dau.

Aolan amaitu eban Aita Arzuagak: "Ni-  
re ustez auxe pasauko da Kuban: komu-  
nismoa edo gerrea. Eztot ikusten beste ur-  
tekerarik. Orrexegaitik gauza bat eskatzen  
deutzuet danori: ogera joan baño len erre-  
satu eizuela Agurmari bana Kubaren alde.  
Iru errazo onexegaitik kondenaten dot nik  
komunismoa: komunismoa Jaungoiko ba-  
gea dalako, eta nik Jaungoikoagan sinistu-  
ten dodalako. Komunismoa diktadura da-  
lako, eta ni demokrata nazelako. Komunis-  
moa materialistea dalako, eta ni espiritua-  
listea nazelako".

A. Zubizarreta

## 3 garren orritik dator

Bai, sarritan gatz egiten yaku batzuekai-  
tik otoitz egitea, atsegin etxakuzalako, eta  
geare gauzetan sartuta besteak alde batera  
jaten doguzalako, eta baita sarriegi buru-  
gabe ta biotzgabeak garealako be.

Baiña zentzun apurtxo bat badogu, biotz-  
gare maitasun apurrik geldituten bayaku,

gizon eta gauzakaz —seme, etxeko, erri—,  
ardurarik badogu, berez begiak Jainkoaga-  
na jasoko doguz onen eta gure maitasuna  
indartu daiala arren eskatuteko.

Besteen alde erregututea, otoitzik ede-  
rrena eta kristiñauena da.

A. Arzelus

**GABON ZORIONTSUAK**  
eta URTE BARRI ON  
irakurle guztiori.





# URTE - GORDIÑAK

## II.—MUTILLENTZAT.

Nor zaitugu? Ez daukozu igezko mutil koxkor aren antzik be. Praka luzeak, korbata dotorea, esku biak patrikaran... artista bat emoten dozu. Eta zigarrorik ez dedilla paltau. Orixe bear genduan! Sasoi orretan zigarroak gizontasun erdia emoten ei dau, (alan uste dozu beintzat). Kolorerurixkea, begi illun, buruko min... orra zer emoten deutsun zigarroak. Alan da be lagunartera ezin joan ezpanetan ezer barik; beste guztiak bai eta zuk ez, itxura ederra... Esango leuke.

Jakiña, etzara igezko umea. Igez gurasoen esanak ixil-ixillik egiten zenduzan, baiña beti olan bizi bear al dozu ba? Azi zara. Bizarra be kentzen dozu. Edan barriz? Gizonagotzat eukiko zaitue gorritik ekiten badozu. Eta... konturatu al ziñan? Gogoan al daukazu? Lengo batean "bar" batetik urtekeran ezin zenduan atea edei, eta beste batek edei eutsun. Eta eskaillera-mailla baten orde bi pasau eta ia-ia jausi ziñan. Eta zu konturatu barik jota jaurti zenduan silla a? Gogoan al daukazu? Eta zu kalean arrotxo ta alaiegi ikustean, emakume eta gizonezko zarrak asarratu egin ziran, eta zure edadekoak barre egin eutsuen. Gogoratzen zara?

Kontuz!!! Ete dakizu boseadore bateri zer pasau yakon? Zera, bere arerioa ezerez bat zalakoan igon zan "ring"era, lenengo golpean menperatuko ebalakoan, l.o. itxiko ebalakoan. Eta? Lenengo golpea uts egin, jo eban besteak okotzean eta konorte barik gelditu zan. Ez dakizula gero zuri olakorik jazo. Eta boseoan asi barik jazo daiketzu. Zeure barruan daroazu arerio ori, zeure burua dozu. Ezagutu eta zuzendu egizu.

"Pedro ez da ni baiño zarragoa, ta andragaiagaz dabil" —esango dozu. Orduan txikitzat daukozu zure burua andragairik ez daukozulako, eta andragaiia bear ei dozu. Baiña kontuz, barriz be kontuz. Arazo onetan ez da nausi eta zorionsuen lenengo dabilena, zintzo eta zentzuz dabilena baiño. Zuri be priesaz ez ibilteko esango deutzut. Elduko yatzu garaia. Zu ibilli zaite trankil. Ibillle daitela Pedro gizon-itxura egiten; itxurak ezer gitxi emongo dautso.

Loli be neskatil ederra dala diñozu. Inguruetan ez ei da beste olakorik sortu. Lau-bost bat mutil ba-dabiz bere ondotik, zure lagunak danak. Beragaz joanda bere lepotik barre egiteko tentazi-

ñoa be izan dozu, baiña... Pentsau egizu zere Zergaitik joan gura izan dozu zorioneko lan orrengana: egizko maitasunez, ala jai arratsalderan beragaz paseetan ikusi zaiezen? Eta orrean edozer gauza esan eta egizu, eta basoko txoriak lez libre dabillen neskatilla polit ori, gero zere semeak azi eta eziteko gauzako dala uste duen?

"Tximist-indarra" esan deutso nonork maitasunari. Ez, Jauna, ez da olan. Maitasuna baiña iñor il edo zauritzen dauan tximist-indarra, maitasuna bizitzaren eusgarri eta aga izan bear da gero ta aga sendoagoa gaiñera. Kontuz, bai, zentzun aundiz ibilli zaitez, gaztea, urte onetan urte gordin, urte laban onetan; zure bizitza maitasuna betiko zimeldu ez daitezten. Orretan ko ez eskeiñi zure biotza eta maitasuna kaltetzean lenengo ikusten dozun neskatillari.

NESKA-MUTIL gazteok: pinturaz gorrituz eta zigarro-kez orixketutako zuen matrail orrean ez dira ez bizitza eta ez gaztetasuna. Zuen bizitzean orain sentitzen asi zarien maitasun-hilabete ori ez daizuela alperrik galdu, oker eta zorrietan erabilliaz. Kontuz ibilli, balio aundiko txia da-ta; eta bein galdu ezkeru, oso gatza barriz aurkitzen.

Dionisio Arruti

